



Adingabeen babes
esparruan Nafarroako
Arartekoak dituen
eskumenak zabaltzea



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

ADINGABEEN BABESAREN GAIAN
NAFARROAKO ARARTEKOAK DITUEN
ESKUDUNTZAK EMENDATZEARI
DAGOKION TXOSTENA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

Izenburua: **Adingabeen babes esparruan Nafarroako Arartekoak dituen eskumenak zabaltzea.**

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2008ko, Ekaina

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea:

Lege gordailua:

%100 birziklatua, erabat klororik gabea eta bizi ziklo osoan ingurumen inpaktu gutxikoa den paperean inprimatua, ondoko ziurtagiriak dituena: Blauer Engel, Nordic Swan eta Europako Batasuneko etiketa ekologikoa.



0

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

I. SARRERA	11
II. INDARREAN DAGOEN ANTOLAMENDU JURIDIKOAN SARTZEA ALDAKETA	17
III. ADINGABEEN BABESAREN GAIAN NAFARROAKO ARARTEKOAK DUEN ERAKUNDE EGITEKOA	23
IV. ADINGABEEN BABESAREN GAIAREKIN LOTUTA, NAFARROAKO ARARTEKOAREN EGINKIZUNAK	29
V. AGINDUTAKO EGINKIZUNAK BETETZEKO EKINTZAK EDO BITARTEKOAK	49
VI. BALIABIDE PERTSONALAK ETA MATERIALAK DIRELA ETA, AIPAMENA EGON DAITEKEEN PREMIARI	61
VII. ERANSKINA	65

1

SARRERA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

1. SARRERA.

Foru Komunitatearen egoeraren gaineko politika nagusiko eztabaida zela eta, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2008ko azaroaren 7an egindako saioan, honako erabaki hau onartu zuen:

11

“Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako arartekoari eskatzea txosten bat egin eta aurkez dezan, eta bertan lege, legegintza edo erregelamenduei dagokienez behar diren aldaketak proposa ditzan, bere eskumenak gutziz garatu eta zabaltzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek adingabeen babeserako egiten dituzten politikak hobeki kontrolatze aldera”.

Transkribatu den erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean emana dago argitara; hain zuzen, 102. zenbakia duenean, 2008ko azaroaren 14koan. Erabaki horren ondorio da honako txosten hau, eta erabaki hartan dagoen parlamentu agindua betetzeko asmoa du.

Indarrean dagoen antolamendu juridikoak ez ditu modu zehaztuan jasotzen, xeheki, Nafarroako Arartekoak adingabeak babesteko gaian gauzatu ahal dituen

eskumenak eta ahalmenak. Alde batetik, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 4/2000 Foru Legeari, uztailaren 3koari, erreparatu behar zaio. Foru lege horrek Arartekoaren eginkizunak, eskumenen esparrua, eta jarduteko baliabideak eta prozedurak arautzen ditu, baina ikuspegi nagusi batetik egiten du, ez arloz arloko ikuspegitik. Hau da, aipatutako foru lege horretan ez dago gainbegiratzen duen administrazio publikoaren jarduerarekin lotutako materia arlo jakinetan Arartekoaren esku-hartzea berariaz aipatzen duen agindurik. Beste alde batetik, 15/2005 Foru Legeak, abenduaren 5ekoak, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoak, 14. artikuluan, Nafarroako Arartekoa aurreikusten badu ere –haurren eta nerabeen eskubideak zaintzeko eginkizuna agintzen dio-, hemen axola zaigun alderdiaren gaineko arautzea labur-zehatz eta generikotzat jo daiteke. Alde horretatik, adierazi behar da aipatutako legezko aginduaren hirugarren atalak honako hau ezartzen duela: “Arartekoa haurren eta nerabeen eskubideak babestean arduratuko da eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, honakoak besteak beste: a) Jardutea, bere kabuz edo norbaitek eskubideak urratzeari buruzko kexa jarri duelako;

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari jardun dezala eskatzea, foru lege honekin zerikusia duten gaietan; c) Nafarroako Foru Komunitateko haurrek eta nerabeek duten egoera baloratzea urteko txostenean; d) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari legean jasotako programak eta jarduketak benetan bete daitezela eskatzea”.

Honenbestez, txosten honek abiaburu ditu nabarmendu behar diren bi premisa: adingabeen babesaren gaian, Nafarroako Arartekoaren esku-hartzea egun bideratzen duen araudia urria dela egiaztatzea, alde batetik; eta parlamentuko goi mandatariak aipatutako gaian dituen eskumenak modu osoan garatu eta emendatu daitezzen nahi izatea Nafarroako Parlamentuak, beste alde batetik. Nahi hori, hain zuzen, 2008ko azaroaren 7ko Erabakian adierazia du.

Izan ere, Nafarroako Parlamentuak estimatu duen moduan, gure adingabeen eskubideak eta askatasunak zaintzeko egitekoa –Nafarroako Arartekoare 4/2000 eta 15/2005 foru legeetan emana- indartu egin daiteke, horri eskumen eta ahalmen berriak eta indartsuagoak emanda edo, are gehiago, indarrean dagoen antolamendu juridikoko ondoriozta daitezkeenetako batzuk xehetasun handiagorekin araututa.

Indarrean dagoen antolamenduan lortu nahi den arau aldaketa sartzeari dagokion auziari heltzen zaio txostenean lehenbizi, modu sistematiko batean. Ondoren, adingabeen babesaren gaian Nafarroako Arartekoak duen erakunde zeregina zehazten, egiteko hori gauzatzearekin lotuta dauden eginkizunen multzoa espezifikatzen eta eginkizun horiek modu egokian betetzeko erakundeak balia ditzakeen ekintzak edo bitartekoak azaltzen dira. Azkenik, legegilearen agindua modu eraginkorrean betetzeko aukera emango duten baliabide pertsonalak eta materialak direla eta, egon daitekeen premia aipatzen da.



2

INDARREAN DAGOEN
ANTOLAMENDU JURIDIKOAN
SARTZEA ALDAKETA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

2. INDARREAN DAGOEN ANTOLAMENDU JURIDIKOAN SARTZEA ALDAKETA.

Adierazia gelditu den moduan, txosten hau oinarritzen duen Nafarroako Parlamentuaren Erabakiak agintzen dio erakunde honi proposa ditzala adingabeen babesaren gaian bere eskumenak osoki garatu eta emendatu ahal izateko beharrezkoak diren aldaketak, legezkoak edo arauzkoak.

17

Atariko gisa, nabarmendu behar da ez dirudiela zalantzazkoa aldaketa hartzen duen eta adingabeen gaian Nafarroako Arartekoak jarduteko esparrua eta aukerak emendatzen dituen arauak foru lege maila izan behar duela, bai erakunde honen jatorriagatik, bai eta gure antolamendu juridikoa bideratzen duen legearen erreserba printzipiotik ondorioztatzen diren eskakizunengatik ere.

Hori aintzat hartuta, indarrean dagoen antolamendu juridikoa aldatzeko, zentzuz, aurkezten diren aukera desberdinak azaldu nahi dira atal honetan, hau da, gure iturri sisteman, bere kasuan, onartzen den foru legea sartzeko aukera desberdinak. Aukera horiek jarraian aurkezten diren honako hauek dira:

1. Foru lege bat onartzea, modu espezifikoa, Nafarroako Arartekoaren eginkizunak zabaltzea arautzeko. Hain zuzen ere, Adingabeen Nafarroako Defendatzaile izaera emango dio foru lege horrek, eta ez du eragingo beste legezko araren baten aldaketa nabarmenik.
2. Nafarroako Arartekoaren 4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, aldatzea. Horretarako xedapen gehigarri bat (laugarrena izango litzateke) edo beste artikuluren bat (11 bisa) sartu beharko da testuan. Helburua izango da testu hori osatzea, aipatzen ari garen gai jakin horretan onartutako eskumenak eta eginkizunak adierazita.
3. 15/2005 Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoa, aldatzea; izan ere, foru lege horren 14.3 artikulua Nafarroako Arartekoari agintzen baitio talde horren eskubideak zaintzeko eginkizuna. Hartara, egun dagoena baino zabalagoa eta zehatzagoa den araudia ezarriko da.

Erakunde honen iritziz, nahiz eta proposatu diren hiru aukerak zuzenak diren, teknika juridikoko arrazoiak direla eta, hiruretako lehena da gomendagarriena. Alde batetik, adierazi den moduan, 4/2000 Foru Legea arloz arloko izaera

ez duen araua da. Izaera nagusia du, eta, hartara, Nafarroako administrazio publikoen jarduera dela eta, edozein izanik ere, Nafarroako Arartekoak duen gainbegiratze eginkizun osoa arautzen du, eta ez du esparru material jakinen gaineko zehaztapenik hartzen. Bide batez esan behar da ezaugarri hori komuna dela Nafarroako Arartekoaren kideko diren erakundeen araudi desberdinetan. Ez dirudi bidezkoena izaera nagusi hori bestelakotzea, arloko esparru bati dagokion araudia testuan sartuta, garrantzi handia badu ere, erakundea jarduten den esparruen artean beste bat gehiago baizik ez baita.

Beste alde batetik, Nafarroako Arartekoaren eginkizunak direla eta, proposatzen den arautzeak garrantzi nabarmena duela kontuan harturik, ez dirudi egokiena 15/2005 Foru Legearen 14. artikuluan sartzeari arautze horren edukia. Izan ere, arau hori berez da luzea eta adingabeen estatutu juridikoaren gaineko hainbat gai arautzen ditu, baina ez eskubideak erabiltzea bermatzeko erakunde bideak.

Azken batean, ulertzen da egokiena dela erakunde hau arautzen duen 4/2000 Foru Legearen, uztailaren 3koaren, izaera nagusiari eustea eta Adingabeen Defendatzailea figura sortzea nabarmentzea. Horretarako, Nafarroako Arartekoa

hartuko da Adingabeen Defendatzailatzat eta dituen eskumenak emendatuko dira. Eskumen horiek emendatzeko, foru lege berri bat onartuko da, eta aipatutako 4/2000 eta 15/2005 foru legeen osagarri moduan erabiliko.



3

ADINGABEEN BABESAREN
GAIAN NAFARROAKO
ARARTEKOAK DUEN ERAKUNDE
EGITEKOA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

3. ADINGABEEN BABESAREN GAIAN NAFARROAKO ARARTEKOAK DUEN ERAKUNDE EGITEKOA.

23

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 4/2000 Foru Legeak, uztailaren 3koak, Arartekoari eskubideak eta askatasunak zaintzeko eginkizuna agintzen dio. Eskubide eta askatasun horiek Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutakoak dira. Herritarren eskubide horien artean, jakina, adingabeenak daude, eta adingabe ezaugarri hori ez da inolaz ere eragozgarri kexak jartzeko (19.1 artikulua). Modu zehatzago batean, 15/2005 Foru Legeak, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoak, 14.3 artikuluan, agintzen dio Erakundeari adingabeen eskubideen aldeko zaintza egiteko eginkizuna.

Aginpide hori nabarmendu eta indartu ahal da arau berri bat onartuta: Nafarroako Arartekoa berariaz hartuta "Adingabeen Nafarroako Defendatzailatzat". Hartara, haurren eta nerabeen eskubideak erabiltzearen alde egiten dela eta erabiltzea hobetzen dela zaindu beharko du, gai honetan dituen eginkizunak emendatuta. Helburu horretarako, Nafarroako Arartekoak, edo nahiago bada, Adingabeen Nafarroako

Defendatzaileak, zaindu beharko du Nafarroako administrazio publikoen jardunak eta haurrei eta nerabeei zerbitzua ematen dieten erakunde publiko eta pribatu guztien jardunak errespetatzea antolamendu juridikoak adingabeei onartzen dizkieten eskubideak, eta arreta berezia jarri beharko dio 1989ko azaroaren 20an Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan hitzartutakoari. Aipatu berri den nazioarteko arau horri berariazko erreferentzia egitea, ez bada ere nahitaezkoa zentzu hertsian, ohikoa da adingabeen babeserako gaian emandako legeetan. Eta, gainera, gogora ekartzen du botere publiko guztiek eta konbentzio horrek duten lotura. Izan ere, egiazko nazioarteko ituna da, Espainia behartzen du, eta, aipatutako nazioarteko esparruan, hierarkia nagusiko arau espezifikoa da.

Adierazi da aldaketaren helburua dela Nafarroako Arartekoak adingabeen eskubideen babesaren gaian dituen eskuduntzak nabarmentzea eta indartzea. Erakundea “Adingabeen Nafarroako Defendatzailetzat” jotzea lehenbiziko helburuari dagokio. Beste alde batetik, eta nahiz eta aurrerago berriz itzuliko den alderdi hau lantzerantz, Arartekoaren eskuduntza indartua gelditzen da gaitu egiten delako. Hain zuzen ere, Nafarroako administrazio publikoen eta horien zaindaritzako zerbitzu publikoen jarduera ez ezik,

gai horretan aritzen den edozein erakunderen jarduera ere zaintzeko, izaera soilki pribatua dutenena barne. Proposatzen den araudi aldaketaren funtsezko berrikuntza da hori, erakundea gaituko bailitzateke adingabeen eskubideak urratzeko gai diren jardun horiek guztiak kontrolatzeko, eta ez bakarrik administrazio publikoak egindako urratzeak edo zerbitzu publiko izaera duten horiek. Hartara, Adingabeen Defendatzailea Nafarroako Parlamentuak sortutako erakundea litzateke, ekimen pribatua gainbegiratzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmen nagusiak lituzkeena.



4

ADINGABEEN BABESAREN
GAIAREKIN LOTUTA,
NAFARROAKO ARARTEKOAREN
EGINKIZUNAK



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

4. ADINGABEEN BABESAREN GAIAREKIN LOTUTA, NAFARROAKO ARARTEKOAREN EGINKIZUNAK.

29

Adingabeen eskubideak babesteko gaien eskuduntzak egoki gauzatu ahal izateko, badirudi komenigarria dela Nafarroako Arartekoaren eginkizunak modu zehatzago batean finkatzea. Alde horretatik, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak, oro har, agintzen dizkion eginkizunez gain, komenigarria litzateke, adingabeen eskubideak babesteko helburuarekin, egoki jotzen dituenak gauzatzeko gaitzea. Eginkizun horien artean, eta alde batera utzirik kideko diren eta helburu berberera bideratuta dauden beste batzuk erabiltzea, dagokion arauan berariaz aurreikusi beharko lirатеке ondoren zerrendatzen diren hauek:

a) Bidezko jotzen diren ikerketak egitea eta, ondorioz, jardutea, bere kabuz edo kexa bat aurkeztu delako, haurren eta nerabeen eskubideak arriskuan, mehatxatuta edo urratuta dauden egoeretan.

Ikerketa lana egitea eta Nafarroako Arartekoa bere kabuz edo, kexak aurkeztuta, herritarrek eskatu diotelako jardutea erakundearen jarduera osoaren ezaugarri da. Hori bera

ondorioztatzen ahal da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 16 a), 17 b) eta 18.1 artikuluetatik. Hori dela eta, adingabeen babesa bezalako esparru batean, Erakundeak gaitua egon behar du beharrezkoak edo egokiak diren ikerketak egiteko, dela bere kabuz, dela herritarrek hala egiteko eskatu diotelako, baldin eta haurren edo nerabeen eskubideen arrisku edo babesgabetasun egoera eragin dezaketen elementuak antzematen badira.

b) Hurrei eta nerabeei eskainitako zerbitzu publikoak eta pribatuak hobetzera eta modernizatzerara bideratuta dauden neurriak proposatzea.

Funtsean administrazio publikoari zuzendutako iradokizunak eta gomendioak adierazten aritzen den erakunde honen jarduteko moduan ere ez da berrikuntza zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak egitea. Alde horretatik, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak honako eginkizun hau agintzen dio Nafarroako Arartekoari: gomendioak zuzendu diezazkiola Administrazioari, bai legezkoak edo bidezkoak ez diren egintzak zuzentzen saiatzeko, bai Administrazioaren zerbitzua hobetzen saiatzeko [16. artikulua, b) letra].

Beharbada, deigarriagoa izango da zerbitzu pribatuekin lotutako proposamenak egitea. Nolanahi ere, ez da inolaz ere ahantzi behar botere publikoei dagokiela horien kontrola, hori bera xedatzen baitute Gizarte Zerbitzuen Foru Legeak eta Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko Foru Legeak. Ondorioz, ez dago eragozpenik Nafarroako Arartekoak hobekuntzak proposatzeko, bai zerbitzu publikoen alorrean, bai zerbitzu pribatuenean, baldin eta horien jardunak eraginik badu adingabeen eskubideetan. Helburua eskubide horiek hobeto babestea lortzea izango da.

c) Adingabeei dagozkien gaietan, Nafarroako Gobernuak eskatu beharko dizkion txostenak egitea, duen legegintza-ekimena edo erregelamendu ahalmena gauzatzen duenean gobernu horrek. Txosten horiek nahitaezkoak izango dira, ez, ordea, bete beharrekoak. Eta eskatzen direnetik zenbatzen hasita, gehienez ere, hogeit eguneko epean egingo dira.

Nafarroako Gobernuaren legegintza-ekimena eta erregelamendu ahalmena abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legean daude araututa, eta, eginkizun hauekin lotuta, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko

Lege Organikoaren aurreikuspenak garatzen ditu. Ez da zalantzazkoa, ahalmen horiek gauzatzearen bidez –legegintza-ekimenarena eta erregelamenduarena–, Foru Gobernuak adingabeen eta, bereziki, horien eskubideak betetzearen eremu juridikoan eragina izateko aukera handiak dituela.

Eskubide horiek errespetatuak izan daitezen lortzeko, ez litzateke sobera egongo Nafarroako Gobernuak eginkizun arautzailea gauzatzen duenean, dela foru legeko proiektuak eginez, dela erregelamendu arauak emanez, beharrezkoa izatea Nafarroako Arartekoari kontsulta eskatzea. Kontsultari erantzuteko esku-hartzea txosten batean gauzatuko litzateke. Txosten horretan ebaluatuko luke bideratzen ari den arauak betetzen ote dituen adingabeen eskubideak, eta, egoki joko balu, egokiak liratekeen gomendioak eta iradokizunak egingo lituzke.

Arartekoaren txostena nahitaezkoa izango litzateke, hau da, derrigorrean egin beharko luke eta, honenbestez, Nafarroako Gobernuak eskatu egin beharko luke. Dena dela, ez litzateke bete beharrezkoa izango, eta, haren jarduera osoak bezala, iradokitze eta gomendatze izaera antzekoa edukiko luke. Ondorioz, txostenaren nahitaezko izaera hori haurren eta

nerabeen eskubideen bermea izango litzateke, baina, aldi berean, botere betearazlearen autonomia gainditua geldituko litzateke, legegintza-ekimena eta erregelamendu ahalmena gauzatzean.

d) Modu nagusian edo osagarrian, etengabe edo noizean behin, adingabeei zerbitzua ematen dieten pertsona fisikoen, erakundeen, enpresen, elkarteen, fundazioen edo beste edozein pertsona juridiko publiko edo pribaturen jarduera gainbegiratzea. Hain zuzen ere, gainbegiratuko dira bai egintzak, bai eta egintzarik ez egitea ere.

Gainbegiratzearen ondorioz, ikusiko balitz administrazio delitu edo arau-hausteren bat gertatu dela, Ministerio Publikoari edo eskuduntza duen administrazio publikoari jakinaraziko lioke, egoki denaren arabera, dagokion zigor prozedura bideratzeko helburuarekin.

Nafarroako Arartekoak edo horren langile aholkulariek egiaztatutako egintzek, dokumentu publiko batean formal bihurtuko direnek, dagozkien lege baldintzak beteta, froga balioa izango dute, alde batera utzirik, eskubideen edo interesen alde egiteko, interesatuek aurkeztu edo adierazi ahal dituzten frogak.

e) Salatzea, urgentziaz eta berehala, Ministerio Publikoari egintzak, adingabe bat delitu edo hutsegite baten biktima izan dela edo izan daitekeela antzematen den kasuetan.

f) Jakinaraztea, urgentziaz eta berehala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, eskuduntza duen organoari, egintzak, adingabe bat administrazio arau-hauste baten biktima izan dela edo izan daitekeela antzematen den kasuetan.

Aurreko hiru atalak batera azter daitezke, aintzat harturik hiruren artean dagoen ezin dudatuzko erlazioa. Adingabeei emandako zerbitzuak, publikoak eta pribatuak, gainbegiratzeko eta ikuskatzeko eginkizunei, eta antzematen diren arau-hausteak salatzekeoi egiten diete erreferentzia. Hain zuzen ere, honako alderdi hauei egiten zaie aipamena:

- Hasteko, Arartekoari agintzen zaio adingabeei zerbitzua ematen dion edozein erakunderen jarduera gainbegiratzeko ahalmena, erakunde horren izaera publikoa edo pribatua den gorabehera. Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen jarduera osoa hartzen du gainbegiratzeak, izaera materiala edo juridikoa den gorabehera. Era berean,

jarduerarik ez egitea ere gainbegiratu daiteke, hau da, galda daitezkeen zerbitzuak ez ematea.

- Nafarroako Arartekoaren edo horren langile aholkularien gainbegiratzeak berekin ekarri ahal ditu egintza idatziak, modu formalean dokumentatuak. Eta, bere kasuan, froga balioa eduki ahal izango dute, antzeman diren araua hausteko egintzekin lotuta bideratu ahal diren administrazio edo epaile txostenetan. Azken batean, ikuskatze eginkizunak egin eta agintari publiko gisa aritzen diren langileek egiten dituzten dokumentuei froga balioa ematen dieten aginduen edukia araura ekarri nahi da (alde horretatik, beste batzuen artean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 137.2 artikulua edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Foru Legeko 69.3 artikulua). Errugabetasun ustekizunaren printzipioa ez da konprometitu gelditzen, onartzen baita beren eskubidea diren frogak eman edo proposatu ditzaketela interesdunek.

- Nafarroako Arartekoak gainbegiratzeko eginkizuna betetzean antzemango balu araua hausten duen

jokaeraren bat, dagokion agintariari egokia den komunikazioa edo salaketa igorriko litzaioke. Administrazio arau-hauste soila izan dela antzemango balitz, administrazio publikoari emango litzaioke horren berri, dagokion zigor txostenaren izapideak egin ahal izateko. Arau-haustea delitua edo hutsegitea balitz, Zigor Kodean ezarrita dagoenaren arabera, horren berri emango litzaioke Ministerio Publikoari, dagozkion helburuetarako.

g) Adingabeen eskubideen gaineko ezagutza eta hedatzea bultzatzea, eta haurren eta nerabeen eskubideei buruzko hedatze eta sentiberatze kanpainak egitea.

Atal honetan aurreikusitako eginkizunak ez du zehaztasun gehiagorik eskatzen. Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko Foru Legeak, 14.1 artikuluan, Nafarroako administrazio publikoei agintzen die adingabeen eskubideak ahalik eta gehiena hedatzeko lana. Alde batera utzirik adingabeen eskubideak bultzatzeko Administrazioak duen rola, Nafarroako Arartekoak, horiek zaintzeko ardura duen erakunde denez, eginkizun hori betetzen parte hartu eta lagundu dezake, nabarmenki aurrea hartzeko izaera baitu.

h) Gatazka batek eragiten dien aldeen artean bitartekotasun edo ebazpen eginkizunak egitea, baldin eta, gutxienez, bi alde horietako bat adingabea bada, hala egiteko eskatzen bazaio eta bi aldeek onartzen badute.

Bitartekotasun eginkizuna ere ez da ezezaguna Erakundearen esparruan. Eginkizun hori Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Foru Legearen 17 c) artikuluan ageri da iradokia. Horren arabera, “konponbideak lortu beharko ditu, betiere organo eta zerbitzu eskudunekin elkarlanean, eta izan daitezela pertsonen bidezko interesen ahalik eta aldekoenak...”. Erakundearen Antolakuntzarako eta Funtzionamendurako Araudian erreferentzia esplizituagoak daude. Hain zuzen ere, araudi horretan honako hau ezartzen da: “Kalte egindako departamentuari, erakundeari edo entitateari kontziliazio edo adostasun formulak proposatu ahal dizkio Arartekoak era berean, kexak modu positiboan eta azkarrean ebazteko...” eta “bitarteko lanak egin ahal izango ditu, hala egiteko eskatzen zaionean eta kalte egindako aldeek esku-hartze horrekin eta horren baldintzekin ados daudela adierazten dutenean”.

Bitartekotasun edo ebazpen eginkizuna hemen aztertzen ari garen esparru materialean barneratuko luke aurreikuspenak,

eta, hartara, ahalbidetuko luke epaiz kanpo konpontzea gatazkak eta horiek kroniko bihurtzeko arriskua murriztuko luke. Jakina, erakunde bitartekariari berezkoa zaion moduan, dagokien aldeek bitartekotzarako baimena eman dezatela eskatzen da.

i) Nafarroako administrazio publikoetako organo eskudunei jardun daitezela eskatzea, haurrak eta nerabeak babesteko legediarekin zerikusia duten gaietan. Hain zuzen ere, zainduko du 15/2005 Foru Legean, abenduaren 5ekoan, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoan, aurreikusita dauden programak eta jarduketak benetan betetzen direla.

Transkribatutako atala ez da berria, 15/2005 Foru Legean, abenduaren 5ekoan, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoan, aurreikusita dauden bi eginkizun biltzen baititu [14. artikulua, b) eta d) letrak].

j) Hurrekin eta nerabeekin erlazioa duten erakunde publiko eta pribatuei, administrazioei, agintariei eta administrazioaren zerbitzura ari diren langileei gomendioak, oharpenak, iradokizunak eta lege-betebeharren gogora -

razpenak egitea. Hartara, erabilitako prozedurak eta jarduteko irizpideak aldatzea, neurriak hartzea eta beharrezkotzat jotzen duen guztia proposatu ahal izango du.

Gomendioak, oharpenak, iradokizunak eta legebetebeharren gogorazpenak egitea Nafarroako Arartekoak adierazteko duen modu naturala da, era horretan deitzen baitzaie bere erabakiei (uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 34.1 artikulua). Honenbestez, egokia da horiek egiteko ahalmena adingabeen babeserako araudian sartzeari. Baina, gainera -eta alderdi hau bada berria-, komenigarria litzateke ezartzea gomendioak, oharpenak, iradokizunak eta legebetebeharren gogorazpenak zuzendu ahal zaizkiola, bai Administrazio Publikoari, bai eta adingabeekin lan egiten duen edo horien gaineko erantzukizuna duen edozein erakunderi ere, baita pribatuei ere.

k) Araudian aldaketak egin daitezela iradokitzea, adingabeen eskubideen alde egiteko, eta, helburu horrekin, bideratzen ari diren legegintza ekimenei proposamenak egitea, parlamentuko dagokion batzordeak irizpena eman aurretik.

c) letran aipatu den nahitaezko txostena egiteaz gain, Nafarroako Gobernuak legegintza prozedura hasten edo

erregelamendu ahalmena gauzatzen duen kasuetan, egokia dirudi Nafarroako Arartekoari onartzea antolamendu juridikoaren gaineko berrikuntzak iradokitzeko aukera. Xedea da, adingabeen eskubideen babesarekin lotuta, antolamendu juridikoan antzematen dituen balizko gabeziei erantzun ahal izatea. Kontuan hartu behar da Nafarroako Foru Komunitateko 4/2000 Foru Legearen, uztailaren 3koaren, 16.c) artikulua gaitzen duela legediaren hutsuneak ikusarazteko eta egokiak diren gomendioak egiteko, zerbitzu publikoei beharrezkoa zaien objektibotasuna eta eraginkortasuna emateko helburuarekin, herritarren eskubideak bermatzeko.

Adingabeen eskubideak babesteko helburu berberarekin, araudian aldaketak egiteko iradokitzeaz gainera, desiragarria litzateke, Nafarroako Parlamentuan bideratzen ari diren legegintza ekimenekin lotuta, Arartekoak proposamenak egiteko aukera sartzea. Betiere, kontuan hartuta ez dela bukatutzat eman parlamentu batzordearen irizpena, ganberaren osoko bilkuran testua bozkatu aurretik egiten dena.

l) Haurren eta nerabeen arazoak eta eskubideak hobeto ezagutzea ekartzen duten azterketak eta ikerketak egitea,

mota guztietakoak. Horretarako, Nafarroako Arartekoak lankidetzaz hitzarmenak sinatu ahal izango ditu erakunde publiko eta pribatuekin.

Aipatu berri den azterketa eta ikerketa eginkizuna lotuta dago txosten honetako g) letran aurreikusitakoari, hau da, adingabeen eskubideak bultzatzeko eginkizunari. Hain zuzen ere, honako hau litzateke: Erakundeak aztertzea adingabeei beren eskubideak osorik gozatzea eragozten edo zailtzen dieten arazoak, beharrezkoa balitz, beste erakunde publiko eta pribatu batzuetako profesionalak lagunduta. Beren konstituzio eskubideak gozatzea eta erabiltzea adingabeei mugatzen dieten oztopoak mugiarazteko baliagarri izan behar zaie botere publikoei arazo horiek aztertzea, ikertzea eta detektatzea.

m) Beharrezkoa balitz, dagokion jurisdikzio eremuan, adingabeen eskubideen eta legezko interesen alde egiteko helegiteak eta egintzak paratzea, bai kasu partikularretan, bai eta urra ditzaketan administrazio xedapen eta ebazpenen aurka ere.

Dudarik gabe, erreformaren berrikuntza adierazgarrienetako bat litzateke hau. Indarrean dagoen antolamenduak ez dio

onartzen Nafarroako Arartekoari legitimazio prozesala (ez eta Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari edo horren kidekoak diren beste erakunde batzuei ere, autonomietakoei). Hori dela eta, pertsona baten eskubidea urratu dela egiaztatzen badu berak –pertsona hori adingabea izango da kasu honetan-, bakarrik erabili ahal izango du gomendioak edo iradokizunak egiteko ahalmena, eta horiek ez dute indar betearazlerik. Horiek aintzat ez hartuta, Arartekoak aintzat ez hartze hori Nafarroako Parlamentuan salatuko du, kasua urteko txostenean sartuta; nolana ere, ez du ahalmenik izango jarduketaren aurka egiteko epailearen bidetik, nahiz eta bide hori den eskubideen berme naturala edo ohikoa.

Muga hori egiaztatuta, atal honetan proposatzen da Nafarroako Arartekoari ematea legitimazioa jurisdikzioaren esparruan, dagokionean, adingabeen eskubideen eta legezko interesen alde egiteko egokiak diren helegiteak eta ekintzak gauzatzeko. Pertsona horiek zaugarritasun egoeran egon daitezke maiz. Eta hori guztia babesteko bai kasu partikularretan bai eta Administrazio Publikoaren jarduketek eskubideei eragiten dieten kasuetan, administrazio egintzetan edo xedapen nagusietan gauzatzen direnetan.

Nafarroako Arartekoari aginduta herritarren eskubideak eta askatasunak babesteko eginkizuna eta, bereziki, adingabeenak zaintzeko eginkizuna, gomendagarria dirudi gaitzea epaile aparatua abian jartzeko, eskubide horiek urratu direla uste duen kasuetan. Hartara, urratzea gertatu dela uste izanda, erakundea gaitua egongo litzateke epailearen bidetik erantzuteko, delako jarduketan edo xedapenen aurka eginda. Hartara, Nafarroako Arartekoa “Adingabeen abokatu” ere izango litzateke. Abokatu abantailatsua, hain zuzen, giza baliabideak eta materialak izango bailituzke, oinarrizko eskubideak babesteko Auzitegi Konstituzionalaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak gauzatzeko.

Are gehiago, ez badago eragozpenik administrazio legeek administrazioen egintzei aurka egiteko legitimazioa handitzeko, zenbait gaitan egintza publikoa –esate baterako, hirigintza edo ingurumen gaitan- eta tokiko erakundeen ondasunak babesteko gaitan bizilagunen egintza berrezartzera iristeraino, ez luke eragozpenik egon beharko legitimaziorik emateko Nafarroako Arartekoari adingabeen eskubideak babestearekin lotuta dagoen guztirako.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartzen dugu konstituzionaltasunaren gaineko arrazoizko zalantzak sor daitezkeela, foru lege baten bidez eskuduntza hau ematearekin lotuta. Aintzat har bedi Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua Estatuari agintzen diola auzibide legeriaren gaiari buruzko eskuduntza eskusiboa. Honenbestez, ulertzekoa litzateke bakarrik estatu mailako lege baten bidez gaitu ahal izango litzatekeela Arartekoa epailearen bidetik jarduteko.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da konstituzio agindu horrek muga dituela “autonomia erkidegoen zuzenbide substantiboaren partikularitasunetatik eremu honetan ondorioztatzen diren beharrezko berezitasunak”. Hori dela eta, arrazoizkoa litzateke adingabeen konstituzio eskubideak bermatzeaz arduratzen den erakunde batek izatea, epailearen organoetan, helegiteak eta ekintzak paratzeko legitimazioa izateko auzibide berezitasuna.

n) Dagokion administrazio publikoari hertsatuki eskatzea ofizioz abiaraz dezala ondare erantzukizuneko prozedura, baldin eta zerbitzu publiko baten funtzionamenduaren ondorioz, adingabe batek edo batzuek beren eskubideak urratuak izan badituzte eta, indarrean dagoen

legediarekin bat, kalte-ordaina ematea eragin dezakeen kaltea hartu badute.

45

Aipatu berri den eginkizuna honako hauetan ezarritakoarekin lotzen da: Konstituzioaren 106.2 artikuluan; Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, 139. artikuluan eta hurrengoetan; eta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kasuan, 15/2004 Foru Legearen, abenduaren 3koaren, 76. artikuluan eta hurrengoetan. Konstituzio aginduak, aipatutako lege horietan garatuak, partikularrei onartzen die kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, beren ondasunek eta eskubideek jasaten duten edozein urratzeren ordain gisa, ezinbestekak bultzaturik eragindako urratzeetan izan ezik, eta betiere aintzat hartuta urratzea zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorio dela”.

Hori uste izanda, eta Administrazio Publikoaren ondare erantzukizuna onartzera jotzen duen prozedura ofizioz edo interesdunak erreklamazioa aurkeztuta abiarazi behar denez, egoki dirudi Arartekoa gaitzea, adingabe baten eskubideak urratu direla antzematen duen kasuetan, administrazio publiko horri hertsatuki eskatzeko kalte-ordainak emateko dagokion auzibidea abiaraz dezala.

ñ) Nafarroako haurrek eta nerabeek duten egoera baloratzea, Nafarroako Parlamentuari aurkezten dion urteko txostenean.

15/2005 Foru Legean, abenduaren 5ekoan, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoan, ageri da eginkizun hau [14.3 artikulua, c) letra].



5

AGINDUTAKO EGINKIZUNAK
BETETZEKO EKINTZAK EDO
BITARTEKOAK



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

5. AGINDUTAKO EGINKIZUNAK BETETZEKO EKINTZAK EDO BITARTEKOAK.

Logikoa den moduan, adingabeen babeserako agindutako eginkizunak edo eskuduntzak modu eraginkorrean bete ahal izateko, Nafarroako Arartekoak gaitua egon behar du zenbait ekintza gauzatu ahal izateko, horietako gehienak bere gainbegiratze boterearen mende dauden erakundeen aurka betetakoak. Komenigarritzat jo daitezkeen beste batzuez gain, atal honetan ageri dira onartuko litzatekeen arauan kontuan hartu beharko liratekeenetako batzuk.

a) Hurrei edo nerabeei edozein laguntza edo zerbitzu ematen dieten erakunde publiko edo pribatuen eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuak eta barneak ikuskatzea.

Hemen aztertzen ari garen esparruan jarduten diren erakunde publiko edo pribatuen zerbitzuak eta barneak ikuskatzeko eskumena bere-berea du Nafarroako Arartekoari agindua zaion gainbegiratze eginkizunak. Jakina, adingabeen eskubideak errespetatzen direla egiaztatzeko beharrezkoa da Erakundeak ikuskatu ahal izatea adingabeei laguntzen dieten

edo zerbitzuak ematen dizkieten erakundeen jarduera. Berrikuntza adierazgarri moduan, nabarmendu behar da ikuskatzeko eskumena ez dagokiola, modu eskusiboan, Administrazio Publikoaren jarduerari edo publikotzat jotzen diren zerbitzuen jarduerari (4/2000 Foru Legearen, uztailaren 3koaren, araudi nagusian gertatzen den moduan), baizik eta zabaltzen dela eta hurrei edo nerabeei edozein motatako laguntza edo zerbitzua ematen dien edozein pertsona publiko edo pribatu hartzen duela.

b) Hurrei edo nerabeei laguntzen dien edo zerbitzuak ematen dizkien edozein erakunde publikotako edo pribatutako langileekin elkarrizketak egitea, edo, zitazio bidez, aurkez daitezela eskatzea.

Aurrekoarekin estu loturik dagoen ekintza da hau. Gainbegiratzeko eginkizuna bete ahal izateko, zentzu hertsian hartutako ikuskatzeko ekintzez gain, komenigarria izan liteke adingabeei zerbitzuak ematen dizkieten erakundeen arduradunekin elkarrizketa pertsonalak izatea. Are gehiago, egoerak hala eskatuko balu, dagokion zitazioaren bidez, Nafarroako Arartekoak bere aurrean aurkez daitezela eskatu ahal izango lieke, beharrezkoa den informazioa biltzeko helburuarekin.

c) a) letran aipatutako administrazioei edo erakundeei txostenak eskatzea, eta espedienteak eta dokumentuak erreklamatzeko. Ezin izango da inolaz ere argudiatu datu pertsonalen babeserako legedia edo beste edozein, bere eginkizunak betetzeko asmoz, Nafarroako Arartekoak egiten dituen eskaerei kontra egiteko.

Adingabeei zerbitzuak ematen dizkieten erakundeen jarduerarekin lotutako txostenak eta beste dokumentu batzuk aztertzea ere, jakina, beharrezkoa izan daiteke gainbegiratzeko edo ikuskatzeko eginkizunak egoki bete ahal izateko. Komenigarria izan liteke, legedia oker interpreta ez dadin –gure ustez oker interpretatu izan baita-, Nafarroako Arartekoari horrek ikerketak egin ahal izateko eskatzen duen informazioa edo dokumentazioa ukatzea desegokia dela nabarmentzea. Eta esplizitu egin beharko da administrazio publikoek edo adingabearen babesaren alorrean aritzen diren gainerako erakundeek ezin izango dutela aitzakiatzat erabili izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen legedia edo besteren bat.

Legedi horrek jasotako datuen gaineko sekretua gorde behar izatea ezartzen du, eta, arau gisa, ezin izatea datu horien berri eman beste batzuei. Jakina, ulertu behar da datuen

berri emateko debeku hori ezin aplika daitekeela informazioa eskatzen duena, hain justu, herritarren eskubideak eta askatasunak babesteko eginkizuna duen Parlamentuko goi mandataria den kasuetan, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren, abenduaren 13koaren, 11.2 d) artikulutik eta bosgarren xedapen gehigarritik ondorioztatzen den moduan.

d) administrazio eta erakunde publiko eta pribatu desberdinekin lankidetzaz hitzarmenak izenpetzea, edo horien arteko hitzarmenak bultzatzea. Horien helburua izango da administrazio delituen edo arau-hausteen biktima izan diren adingabeek jaso dezatela behar duten arreta doan eta, beharrezkoa izanez gero, presaz. Arreta hori psikologikoa, osasunekoa, hezkuntzakoa, soziala, legezkoa edo beste edozein motatakoa izango da.

Beren eskubideak eskuarki urratuak izan dituzten adingabeek hainbat motatako laguntza beharko dute, multidiziplinarioa, egin dieten kaltea arintzeko asmoz. Laguntza hori mesedetzeko eta modu koordinatuan eman dadin lortzeko helburuarekin, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak izenpetu ahal izango lituzke lankidetzaz hitzarmenak administrazio publikoekin edo erakunde pribatuekin, eta,

hartara, babes osoa ziurtatu ahal izango lieke beren eskubideak urratuak dituzten adingabeei.

e) Haurren eta nerabeen gaian iradokizunak jasotzeko prozedura ezartzea eta mesedetzea, eta, bereziki, adingabeek berek egindakoenak jasotzekoa.

Ekintza hau, erreakziokoa baino gehiago, adingabeei emandako zerbitzuak hobetzekoa da. Haurren eta nerabeen gaian iradokizunak jasotzeko mekanismo bat ezartzeak, hasieran, balioko luke herritarrek interes publikoko gaietan parte hartzeko eta, bereziki, gaiak zuzenean gehien eragiten dien pertsonak egindako proposamenak, adingabeek berek egindakoak, bideratzea mesedetuko luke. Azken batean, ekintza hau ezarriz, adingabeen eskubideen babes maila hobetu nahi da, herritarrek parte hartzea bultzatuta.

f) Agintariei eta erakunde publiko edo pribatuei hertsatuki eskatzea berehala utz ditzatela bertan behera antolamendu juridikoak adingabeei onartzen dizkien eskubideak urratzen ahal dituzten egintzak eta jokaerak.

Eskubide bat urratu dela antzemanda, antolamenduak galdatzen du araua hausten duen ekintzaren eraginak

minimizatzen saiatzeko. Hori dela eta, erresalbuzko neurri eta epaile babes eraginkorrerako eskubidearen adierazpen moduan, aurreikusten da egintzen eta jokaeren eraginak bertan behera uztea.

Aurrekoa uste izanda, eta nahiz eta bertan behera uztea agintzeko ahalmena botere judizialari edo egintza egin duen administrazio publikoari berari dagokion, egokia dirudi Nafarroako Arartekoari dagokion sugestio ahalmena erabili ahal izatea bertan behera uzte hori hertsatuki eskatu ahal izateko. Aztertzen ari garen gai honen kontrola administrazio publikoen eta erakunde pribatuen jardueren gainean egingo denez, Arartekoaren eskaria bai batzuei eta bai besteei zuzendu ahal izango zaie, egokia denaren arabera.

g) Lehentasunez eta presaz, laguntza eskatzea Foruzaingoari eta Nafarroako gainerako polizia erakundeei, beren eginkizunak modu eraginkorragoan betetzeko eta adingabeen eskubideen eta legezko interesen alde hobeto egin ahal izateko.

Gerta liteke, zenbait gatazka egoeratan, adingabeen eskubideak modu eraginkorrean babestu ahal izateko, Nafarroako Arartekoak egoki jotzea Segurtasun Indar eta

Erakundeen laguntza eskatzea. Hortaz, proposatzen da legezko testuan sartzea Foruzaingoaren eta Nafarroako beste polizia erakundeen laguntza, lehenetasunez eta presaz, eskatu ahal izateko eskumena.

h) Berak edo erakundeko langile aholkularien bidez, kudeaketak zuzenean eta idatzi gabe egitea, adingabearen egoeraren premiak modu horretan egiteko eskatzen duenean. Gero, txostenean berariaz idatziz jasoko dira egindako kudeaketak.

55

Arau nagusi moduan, Arartekoak jarduteko duen moduak komunikazioetan eta egintza idatzietan gauzatzen diren prozedurak izan behar ditu oinarri, nahiz eta ez dauden formaltasun hertsien mende. Dena den, aipatzen ari garen esparruan izango dira berehala esku hartu behar izango den okasioak, egoeraren premiagatik edo larritasunagatik. Hipotesi horietan ohiko prozedura baten izapideak, arinak eta azkarrak badira ere, baliteke bateraezinak izatea adingabearen eskubideak modu eraginkorrean babesteko helburuarekin. Beraz, egoeraren larritasunak hala egiteko eskatzen duenean, komenigarria da Arartekoak edo horren langile aholkulariek zuzenean eta idatzi gabe jardun ahal izatea, alde batera utzirik, ondoren, dagokion txostenean

dokumentatuko dela jarduketa. Konponbide hau ez da arraroa antolamendu juridikoan, jarduketa zuzenak, inolako formaltasunen mende ez daudenak, aurreikusten baititu, hala egitea gomendatzen duten presazko edo larrialdi egoeren hipotesietan.

Azkenik, aipatu behar da administrazio publikoek eta adingabeei laguntza eta zerbitzuak ematen dizkieten gainerako erakundeek laguntzeko gorde behar duten betebeharrak komenigarri egiten duela beste arau-hauste bat sailkatu behar izatea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babeserako 15/2005 Foru Legean, abenduaren 5ekoan. Hain zuzen ere, betebeharrak hori bete gabe uzten dutenei eragingo die. Foru lege horren 99. artikulua arau-hauste larriak ezartzen ditu, eta horien artean txertatu ahal izango litzateke honako hau:

“Adingabeen babesaren gaian Nafarroako Arartekoaren ikerketak eta jarduketak oztopatzea. Zigortzeko prozedura Nafarroako Arartekoaren ekimenez bideratuko da, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan dagokion departamentuari egokituko zaio zigorra. Hori guztia alde batera utzirik arau-hausleari exijitu ahal izango zaizkion erantzukizun penalak”.

Arau-hauste hau sailkatzeak duen izateko arrazoia erraz uler daiteke. Legegileak ezartzen badu gai honetan jarduten den edozein erakundek Nafarroako Arartekoari laguntzeko betebeharra duela, aintzat harturik goi mandatarari horrek haurren eta nerabeen eskubideak zaintzeko eginkizuna duela, zigortu egin beharko da betebeharrak hori betetzen ez duena, erakundearen ikuskaritza jardura oztopatuko baitu. Aintzat harturik zigortzeko ahalmenak administrazio izaera duela, Nafarroako Foru Komunitateko dagokion departamenduak gauzatu beharko du, Nafarroako Arartekoak berak eskatuta.



6

BALIABIDE PERTSONALAK ETA
MATERIALAK DIRELA ETA,
AIPAMENA EGON DAITEKEEN
PREMIARI



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

6. BALIABIDE PERTSONALAK ETA MATERIALAK DIRELA ETA, AIPAMENA EGON DAITEKEEN PREMIARI.

Azkenik, legegilearen agindua ahalik eta modu eraginkorrenean betetzeko aukera emango duten baliabide pertsonalak eta materialak direla eta, egon daitekeen premia aipatu behar da. Adingabeen babesaren gaian erakundeari eskuduntza berriak agintzeak berekin ekarriko dituen berrikuntzek, araua aplikatzeko aukerak esplotatu nahi badira, logikoki, egun dagoen jarduera baino handiagoa eskatuko dute.

61

Kontuan izanik hori, eta aintzat hartuta orain dagoen langile zerrenda egun Nafarroako Arartekoak egiten duen jardueraren arabera dagoela diseinatua –gainera, 2007arekin alderatuta, nabarmena izan da jarduera handitze hori (kexak %40 inguru emendatu dira, eta kontsultak, ia bikoiztu)-, komenigarria litzateke langile zerrenda horretan aholkulari tekniko bat eta administrazio zereginetan aritzeko pertsona bat sartzea. Aholkulari tekniko horrek bidea emango luke erakundeari emandako eskuduntza berriak gauzatzeko eta, era berean, giza baliabideak espezializazio maila nahiko baten arabera antolatzeko aukera. Bi langile horiek

zerrendan sartzeko, plantilla organikoa gehitzeko eta aurrekontua handitzeko aldaketak bideratuko lirateke.

Beste alde batetik, eta aurrekoarekin lotuta, nabarmendu behar da erakundeko langileek lan egiteko duten toki fisikoak nekez hartu ahal izango lukeela langile zerrenda handitze hori. Honenbestez, beharbada, beharrezkoa izango litzateke gertu dagoen bulegoren bat erabiltzea eta horrek dakarren gastuari aurre egitea.



7

ERANSKINA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

7. ERANSKINA.

Amaitzeko, txosten honen eranskin moduan, txostena egin ahal izateko erakundeak lanerako erabili duen dokumentua aurkezten da. Adingabeen babesaren gaian Nafarroako Arartekoaren eginkizunak emendatzeko eta Adingabeen Nafarroako Defendatzailatzat hartzeko arauaren edukia biltzen da eranskinean, testu artikuludun moduan. Adierazi den moduan, testua bat dator txosten honetan egindako azterketarekin, bai edukiari dagokionez, bai eta, funtsean, egiturari dagokionez ere. Hortaz, egoki jo da horrekin batera joatea. Jakina, lanerako dokumentu batek duen balioa du, ez handiagoa, parlamentarien lana errazteko helburua duena. Esan beharrik ez dago parlamentari horiek erabiltzeko edo ez erabiltzeko askatasun osoa dutela, eta, erabiltzen badute, egoki jotzen dituzten aldaketak egitekoa.

ADINGABEEN DEFENDATZAILE IZATEKO, NAFARROAKO ARARTEKOAREN EGINKIZUNAK EMENDATZEKO FORU LEGE PROPOSAMENA.

ZIOEN AZALPENA

Adingabeen eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko botere publikoek izan duten kezka modu adierazgarrian handitu da azken hamarkadetan, bai nazioartean, bai eta nazioan bertan ere. 1978ko Konstituzioak ere aintzat hartu zuen kezka hori, eta, hartara, 39.4 artikuluan honako hau xedatu zuen: beren eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko hitzarmenetan aurreikusita dagoen babesa edukiko dute haurrek.

Nolanahi ere, nabarmendu daiteke Nazio Batuek 1989an onartu zuten Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa izan zela adingabeekin lotutako filosofian hasiera markatu zuen araua. Izan ere, adingabeek gizartean duten rola onarpen handiagoa eta horientzat protagonismo handiagoa exijitzea zituen oinarrian. Gero, nazioartean zenbait dokumentu hitzartu dira norabide berebean. Hain zuzen, honako hauek aipa daitezke: Europako Kontseiluaren Gomendioa, 1990ekoa, Haurren Eskubideei buruzkoa; Europako

Parlamentuaren Erabakia, 1991koa, Europako Erkidegoan haurrek dituzten arazoei buruzkoa; eta Europako Parlamentuaren Erabakia, 1992koa, Haurren Eskubideen Europako Kartari buruzkoa.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluko 17. eta 18. atalek ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du gizarte laguntzaren eta haurren eta gazteen politikaren gaietan, eta, gai honen gaineko kezka ere adierazi du. Izan ere, parlamentu honek 15/2005 Foru Legea, abenduaren 5koa, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoa, onartu zuen. Legezko arau horrek ezin dudatuzko lotura du Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoarekin.

Beste alde batetik, Foru Komunitatearen erakunde egiturak egun Nafarroako Arartekoaren figura du, Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria, eta horren egitekoa da herritarren eskubide publiko subjektiboak zaintzea. Erakunde hau 4/2000 Foru Legeak, uztailaren 3koak, sortu zuen, Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1a) artikulua aginduta, bere burua antolatzeke gaian emandako eskumen

osoaren arabera. Eta herritarrentzako berme erabilgarri moduan agertu da, horiek erakundeaz egiten duten erabilera geroz eta handiagoak agerian uzten duen moduan.

Testuinguru honetan, adierazi behar da, era berean, 1989an Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa onartu zenetik, zenbait doktrina eta lanbide sektorek adierazi dutela garrantzitsua dela bermeak bilatzea eta giltzatzea, eskubide horiek egiaz eta modu eraginkorren bete daitezzen. Kontuan izanik hori, antolamendu juridikoan zenbait formula erabaki dira adingabeen eskubideak berariaz zaindu ahal izateko, esate baterako, Adingabearen Madrilgo Komunitateko Defendatzailea eta Kataluniako Sindic de Greuges delakoaren Albokoa.

Gure komunitatearen errealitateak ez du gomendatzen egun dagoen erakunde egitura korapilatzea, lortu nahi den helburua lor baitaiteke adingabeen babesaren gaian egun Nafarroako Arartekoak dituen eginkizunak modu zehatzago batean araututa. Hain zuzen ere, honela egin daiteke: Adingabeen Nafarroako Defendatzailetzat hartuta berariaz, eginkizunak emendatuta eta indarrean dagoen antolamendu juridikoak agintzen dizkionetako batzuk zehaztuta.

Hori dela eta, Nafarroako Foru Komunitateko eta aurretik aipatutako eskumen osoak baliatuz, foru lege hau onartu da Nafarroako Arartekoaren eginkizunak emendatzeko, Adingabeen Defendatzaile berariazko eginkizunean aritzeko. Egitura sinplea du, Nafarroako Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean ezarrita dagoenaren osagarri moduan ulertzen baita. Hain zuzen, Nafarroako Arartekoaren araudi hori ukitu gabe geldituko da. Lehenbiziko artikuluan, Adingabeen Defendatzailetzat hartzea berariaz esleitzen zaio, eta adingabeen eskubideak zaintzeko egitekoa agintzen, arreta berezia jarrita Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak ezarritakoan, gai honetan ildo nagusi gisa funtzionatzen baitu nazioarteko legezko arau horrek. Ondoren, bigarren artikuluan, eginkizun espezifikoak zehazten dira. Eginkizun nagusiei gehituta, Nafarroako Arartekoak adingabeen babesaren gaian gauzatuko ditu. Aurrea hartzeko edo eskubideak bultzatzeko eginkizunak ez ezik, eskubide horiek urratzearen aurka erreakzionatzeko eginkizunak ere badira. Arautze honen alderdi adierazgarria da Arartekoaren gainbegiratze ahalmenari men egin behar izatea, ez bakarrik administrazio publikoek, baita adingabeei laguntza edo zerbitzuak ematen dizkion edozein pertsonak edo erakundek ere, publiko edo pribatu

izan. Hirugarren artikulua aurreikusten ditu Erakundeak gauzatu ahal izango dituen ekintzak, edo, bestela esanda, bere eginkizunak modu eraginkorrean bete ahal izateko erabili ahal izango dituen bitartekoak.

Azkenik, adierazi behar da foru lege honetan sartu behar direla Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko 15/2005 Foru Legeak, abenduaren 5ekoak, Nafarroako Arartekoari agintzen dizkion eginkizunak. Hortaz, dagokion zatia indargabetuta geldituko da. Era berean, foru lege horretan sartu behar da beste arau-hauste bat sailkatzea, Arartekoaren ikerketa lana oztopatzen den kasuetarako.

1. artikulua. Adingabeen Nafarroako Defendatzailea.

1. Nafarroako Arartekoa Adingabeen Nafarroako Defendatzailetzat hartu behar da, eta haurren eta nerabeen eskubideak baliatzea defendatzea eta hobetzea zaindu behar du.
2. Helburu horretarako, zaintzen du antolamendu juridikoak adingabeei onartzen dizkien eskubideak errespetatzen dituztela Nafarroako administrazio publikoek eta haurrei

eta nerabeei zerbitzuak ematen dizkieten erakunde publikoek eta pribatuek, arreta berezia jarrita Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak 1989ko azaroaren 20an ezarritakoan.

2. artikulua. Eginkizunak

1. Eskuduntza gauzatu ahal izateko, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak, oro har, agintzen dizkion eginkizunak betetzen ditu Nafarroako Arartekoak, eta, horiez gain, egoki jotzen dituenak gauzatuko ditu. Egoki jotzen dituen horien artean honako hauek egongo dira:

- a) Bidezko jotzen diren ikerketak egitea eta, ondorioz, jardutea, bere kabuz edo kexa bat aurkeztu delako, haurren eta nerabeen eskubideak arriskuan, mehatxatuta edo urratuta dauden egoeretan.
- b) Hurrei eta nerabeei eskainitako zerbitzu publikoak eta pribatuak hobetzera eta modernizatzerara bideratuta dauden neurriak proposatzea.
- c) Adingabeei dagozkien gaietan, Nafarroako Gobernuak eskatu beharko dizkion txostenak

egitea, duen legegintza-ekimena edo errege-lamendu ahalmena gauzaten duenean gobernu horrek. Txosten horiek nahitaezkoak izango dira, ez, ordea, bete beharrekoak. Eta eskatzen direnetik zenbatzen hasita, gehienez ere, hogeit eguneko epean egingo dira. Epea igarotzen bada txostenik egin gabe, prozedura normatiboan jarraitu ahal izango da.

- d) Modu nagusian edo osagarrian, etengabe edo noizean behin, adingabeei zerbitzua ematen dieten pertsona fisikoen, erakundeen, enpresen, elkarteen, fundazioen edo beste edozein pertsona juridiko publiko edo pribaturen jarduera gainbegiratzea. Hain zuzen ere, gainbegiratuko dira bai egintzak, bai eta egintzarik ez egitea ere.
- e) Salatzea, urgentziaz eta berehala, Ministerio Publikoari egintzak, adingabe bat delitu edo hutsegite baten biktima izan dela edo izan daitekeela antzematen den kasuetan.
- f) Jakinaraztea, urgentziaz eta berehala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, eskuduntza

duen organoari, egintzak, adingabe bat adminis-
trazio arau-hauste baten biktima izan dela edo izan
daitekeela antzematen den kasuetan.

g) Adingabeen eskubideen gaineko ezagutza eta
hedatzea bultzatzea, eta haurren eta nerabeen
eskubideei buruzko hedatze eta sentiberatze
kanpainak egitea.

h) Gatazka batek eragiten dien aldeen artean
bitartekotasun edo ebazpen eginkizunak egitea,
baldin eta, gutxienez, bi alde horietako bat
adingabea bada, hala egiteko eskatzen bazaio eta bi
aldeek onartzen badute.

i) Nafarroako administrazio publikoetako organo
eskudunei jardun daitezela eskatzea, haurrak eta
nerabeak babesteko legediarekin zerikusia duten
gaietan. Hain zuzen ere, zainduko du, bereziki,
15/2005 Foru Legean, abenduaren 15ekoan,
Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari,
Laguntzari eta Babesari buruzkoan, aurreikusita
dauden programak eta jarduketak benetan betetzen
direla.

j) Hurrekin eta nerabeekin erlazioa duten erakunde publiko eta pribatuei, administrazioei, agintariei eta administrazioaren zerbitzura ari diren langileei gomendioak, oharpenak, iradokizunak eta lege-betebeharren gogorazpenak egitea. Hartara, erabilitako prozedurak eta jarduteko irizpideak aldatzea, neurriak hartzea eta adingabeen eskubideetarako hobekien jotzen duen guztia proposatu ahal izango du.

k) Araudian aldaketak egin daitezela iradokitzea, adingabeen eskubideen alde egiteko edo babes maila hobetzeko, eta, helburu horrekin, bideratzen ari diren legegintza ekimenei proposamenak egitea, parlamentuko dagokion batzordeak irizpena eman aurretik.

l) Haurren eta nerabeen arazoak eta eskubideak hobeto ezagutzea ekartzen duten azterketak eta ikerketak egitea, mota guztietakoak. Horretarako, Nafarroako Arartekoak lankidetzaz hitzarmenak sinatu ahal izango ditu erakunde publiko eta pribatuekin.

m) Beharrezkoa balitz, dagokion jurisdikzio eremuan, adingabeen eskubideen eta legezko

interesen alde egiteko helegiteak eta egintzak paratzea, bai kasu partikularretan, bai eta urra ditzaketen administrazio xedapen eta ebazpenen aurka ere.

n) Dagokion administrazio publikoari hertsatuki eskatzea ofizioz abiaraz dezala ondare erantzukizuneko prozedura, baldin eta zerbitzu publiko baten funtzionamenduaren ondorioz, adingabe batek edo batzuek beren eskubideak urratuak izan badituzte eta, indarrean dagoen legediarekin bat, kalte-ordaina ematea eragin dezakeen kaltea hartu badute.

ñ) Nafarroako hurrek eta nerabeek duten egoera baloratzea, Nafarroako Parlamentuari aurkezten dion urteko txostenean.

2. Gainbegiratzeko eginkizunaren ondorioz, Nafarroako Arartekoak ikusiko balu administrazio delitu, hutsegite edo arau-hausteren bat gertatu dela, Ministerio Publikoari edo eskuduntza duen administrazio publikoari jakinaraziko lioke, egoki denaren arabera, dagokion zigor prozedura bideratzeko helburuarekin.

3. Nafarroako Arartekoak edo horren langile aholkulariek egiaztatutako egintzek, dokumentu publiko batean formal bihurtuko direnek, dagozkien lege baldintzak beteta, froga balioa izango dute, alde batera utzirik, beren eskubideen edo interesen alde egiteko, interesatuek aurkeztu edo adierazi ahal dituzten frogak.

3. artikulua. Jarduteko bitartekoak.

Adingabeen alde egiteko eginkizunak betetzeko helburuarekin, Nafarroako Arartekoak, berak edo bulegoko langileek, honako hauek egin ahal izango dituzte:

- a) Haurrei edo nerabeei edozein laguntza edo zerbitzu ematen dieten erakunde publiko edo pribatuen eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuak eta barneak ikuskatzea.
- b) Haurrei edo nerabeei laguntzen dien edo zerbitzuak ematen dizkien edozein erakunde publikotako edo pribatutako langileekin elkarrizketak egitea, edo, zitazio bidez, aurkez daitezela eskatzea.
- c) a) letran aipatutako administrazioei edo erakundeei txostenak eskatzea, eta espedienteak eta dokumentuak

erreklamatzea. Ezin izango da inolaz ere argudiatu datu pertsonalen babeserako legedia edo beste edozein, bere eginkizunak betetzeko asmoz, Nafarroako Arartekoak egiten dituen eskaerei kontra egiteko.

d) Administrazio eta erakunde publiko eta pribatu desberdinekin lankidetzaz hitzarmenak izenpetzea, edo horien arteko hitzarmenak bultzatzea. Horien helburua izango da administrazio delituen, hutsegiteen edo arau-hausteen biktima izan diren adingabeek jaso dezatela behar duten arreta doan eta, beharrezkoa izanez gero, presaz. Arreta hori psikologikoa, osasunekoa, hezkuntzakoa, soziala, legezkoa edo beste edozein motatakoa izango da.

e) Haurren eta nerabeen gaian iradokizunak jasotzeko prozedura ezartzea eta mesedetzea, eta, bereziki, adingabeek berek egindakoenak jasotzekoa.

f) Agintariei eta erakunde publiko edo pribatuei hertsatuiki eskatzea berehala utz ditzatela bertan behera antolamendu juridikoak adingabeei onartzen dizkien eskubideak urratzen ahal dituzten egintzak eta jokaerak.

g) Lehentasunez eta presaz, laguntza eskatzea Foruzaingolari eta Nafarroako gainerako Polizia erakundeei, beren eginkizunak modu eraginkorragoan betetzeko eta adingabeen eskubideen eta legezko interesen alde hobeto egin ahal izateko.

h) Berak edo erakundeko langile aholkularien bidez, kudeaketak zuzenean eta idatzi gabe egitea, adingabearen egoeraren premiak modu horretan egiteko eskatzen duenean. Gero, txostenean berariaz idatziz jasoko dira egindako kudeaketak.

Lehen xedapen gehigarria. 15/2005 Foru Legea, abenduaren 5koa, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoa, aldatzea.

1. 15/2005 Foru Legean, abenduaren 5koan, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoan, dagoen 99. artikuluari atal bat gehitu behar zaio. Hamalagarrena izango da, eta honako hau izango da, hitzez hitz:

“14. Adingabeen babesaren gaian Nafarroako Arartekoaren ikerketak eta jarduketak oztopatzea. Zigortzeko prozedura Nafarroako Arartekoaren ekimenez bideratuko da, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan dagokion departamentuari egokituko zaio zigorra. Hori guztia alde batera utzirik arau-hausleari exijitu ahal izango zaizkion erantzukizun penalak”.

2. 15/2005 Foru Legean, abenduaren 5ekoan, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoan, dagoen 99. artikuluan, 14. atalean sailkatuta dagoen arau-haustearen zenbakia aldatu behar da. Hain zuzen ere, artikuluko bereko hamabosgarren atal gisa arautua geldituko da.

Bigarren xedapen gehigarria. Foru lege honetan aurreikusitako eginkizunak eta ekintzak zabaltzea.

2. artikuluko 1. ataleko m) eta n) letrek eta 3. artikuluko f), g) eta h) letrek aipatzen dituzten eginkizunak eta ekintzak gauzatu ahal izango ditu Nafarroako Arartekoak, jarduteko ildo nagusiko edozein eremutan, baldin eta antzematen badu

Nafarroako administrazio publikoek herritarren eskubideak urratzen dituztela.

Xedapen indargabetzailea.

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko 15/2005 Foru Legearen, abenduaren 5ekoaren, 14.3 artikulua indargabetuta geldituko da, eta bai foru lege honi aurka jartzen zaizkion maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

80

Azken xedapena.

Foru lege hau indarrean jarriko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa